



HAUR HEZKUNTZAKO LEHEN ZIKLOA EUSKADIN

Haurreskolak Partzuergoko
ikastetxeen 2014ko azterketa

Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundean (ISEI-IVEI) egina

Egileak: Cristina Elorza, Francisco Luna (Didaktika taldea)

Estatistika lana: Mikel Urkijo, Eduardo Ubieta (Metodoen taldea)

2015eko maiatza

AURKIBIDEA

1. ESKOLATZE GOIZTIARRA.....	5
1.1. Eskolatzeko goiztiarraren garrantzia	7
1.2. Jaiotza kopuruaren bilakaera Euskadin	9
1.3. Sei urtetik beherako haurren eskolatzeko	11
1.4. Haurreskolak Partzuergoa	13
2. IKERLANAREN EZAUGARRIAK	17
2.1. Ikerlanaren helburuak	19
2.2. Ikerlanaren diseinua eta metodologia	19
2.3. Galdera-sortaren ezaugarriak	20
2.4. Bildutako laginaren deskripzioa	20
3. FAMILIEN EZAUGARRIAK	23
3.1. Ezaugarri sozio-ekonomikoak eta prestakuntzakoak	25
3.2. Hizkuntzaren aldetik ezaugarriak	27
3.3. Jarduerak familiaren ingurunean	28
4. HAURRESKOLAK PARTZUERGOKO IKASTETXEEN BALORAZIOA	31
4.1. Gogobetetze maila orokorra	33
4.2. Haurreskoletako hezkuntza-lanaren balorazioa	34
4.3. Haurreskoletako antolamendu-alderdien, instalazioen eta zerbitzuen balorazioa	36
4.4. Familiaren parte-hartzea eta lankidetzak	37
5. ONDORIOAK	39
6. BIBLIOGRAFIA ERREFERENTZIAK	42

1. ESKOLATZE GOIZTIARRA

1.1. HEZKUNTZA GOIZTIARRAREN GARRANTZIA

Eskolatzearen ehunekoei dagozkien datuak hezkuntzaren kalitatearen adierazleekin orekatu behar dira. Haur Hezkuntzarako gauzatutako politikak edozein izanik ere, nazioarteko ikerlanek aho batez adierazi dute eskolatzeko goiztiarrak eragin onuragarria izaten duela ikasketetan eta gizarteratzean.

Askotariko ebaluazio eta ikerlanetako –haitetako asko nazioartekoak– analisietan eta emaitzetan oinarriturik, honako ondorio hauek atera dira hezkuntza-sistemetan hezkuntza goiztiar egokia egotearen garrantziaz.

- ***Dirudienez, Haur Hezkuntza ikasten duten haurrek epe luzean ikasten ez dutenek baino emaitza hobeagoak lortzen dituzte, ELGak PISA ebaluazioaren bidez erakutsi duen bezala.***

ELGAko herrialdeetan Haur Hezkuntzan urte baterako ere eskolaturik egon ez ziren ikasleak batez beste % 7,1 dira; urte bat edo gutxiago eskolaturik egon zirenak % 18,8 dira; eta urte bat baino gehiago eskolaturik egon zirenak, % 74,1.

ELGAren PISA nazioarteko ikerlanean (2014) oinarriturik, *PISA in focus* sailean argitaratutako *¿Llega la Educación Infantil a aquellos que más la necesitan?*¹ dokumentuak honela dio:

“Haur guztiek, euren egoera sozio-ekonomikoa edozein izanda ere, Haur Hezkuntzako kalitate handiko programetan parte hartzeko aukera izango balute, programa horiek baliagarriak izan litezke Lehen Hezkuntzako prestakuntzan eta ikasleen familien egoera sozio-ekonomikoaren aldetik izan daitezkeen desorekak leuntzeko”.

PISA ikerlanak argi erakusten du Haur Hezkuntza ikasi duten 15 urteko ikasleek ikasi ez dutenek baino errendimendu hobeagoa izaten dutela, are egoera sozio-ekonomikoa kontuan hartu ondoren ere. PISA 2012 ebaluazioko datuen arabera:

- Haur Hezkuntza ikasi duten eta ikasi ez duten ikasleen arteko errendimendu-aldea PISA 2003 ebaluaziotik (40 puntu) PISA 2012 ebaluaziora (51 puntu) 11 puntu igo zen, ELGAren iritziz hezkuntza arautuko urtebete baino gehiagoren baliokidea.
- Haur Hezkuntza ikasi ez zuten ikasleek joera handiagoa dute (1,9 aldiz handiagoa) errendimendu-maila apalenetan egoteko. Gainera, PISAk adierazi du Haur Hezkuntza ikasi izanak Lehen eta Bigarren Hezkuntzan irakasmaita errepikatzeko probabilitatea gutxitu egiten duela.
- Espainian Haur Hezkuntza ikasi duten ikasleek –ikasle guztien % 94,1–Lehen Hezkuntzan hasi zirenek baino 57 puntu gehiago lortu zuten (ikasturte bat eta erdiko aurrerapena). Indize sozio-ekonomikoa eta kulturalaren eragina kentzen

¹ELGA 2014 *¿Llega la educación infantil a aquellos que más la necesitan?* PISA in Focus. 2014ko ekaina


baldin bada ere, alde hori oraindik handia da. Ikasleen % 85,9 urte bat baino gehiago egon zen eskolaturik Haur Hezkuntzan; % 8,3, urte bat edo gutxiago; eta % 5,9 zuzen Lehen Hezkuntzan eskolatu zen.

ELGAK aipatu du bi ikasle multzo horien arteko errendimendu-aldearen arrazoietakoa bat honako hau izan daitekeela: Haur Hezkuntza ikasi ez duten 15 urteko ikasleak gehienetan maila sozio-ekonomiko eta kultural apalenetakoak izaten dira. Haur Hezkuntzan eskolatuta egotearen abantailak bereziki garrantzitsuak izaten dira ingurune ekonomiko kaltetuetako ikasleen kasuan. Hala ere, indize sozio-ekonomikoaren eragina kentzen dugunean, errendimendu-aldea oraindik ere handia da.

- **Dirudienez, Haur Hezkuntzan haur gehiago eta denbora luzeagoan eskolatzeak erlazio zuzena du 15 urterekin errendimendu hobea lortzearekin, ELGAK erakutsi duen bezala.**

PISA ikerlanak erakutsi du Haur Hezkuntzan eskolatuta egoteak 15 urterekin errendimendu hobea izatearen arteko erlazioa handiagoa izaten dela Haur Hezkuntza eskolatzeko adineko biztanleriaren proportzio handiagoari, denbora luzeagoan, ikasle/irakasle ratio txikiagoarekin eta haur bakoitzeko inbertsio handiagoarekin eskaintzen dioten hezkuntza-sistemetan.

Haur Hezkuntzan eskolatuta egoteari eta ez egoteari lotutako batez besteko puntuazio-aldea...



Izan ere, gero eta ikerlan gehiagok ² aitortzen dute haurren eskolatzeko goiztiarrak haurren ongizatea hobetzen duela, etengabeko hezkuntzaren oinarria sortzen laguntzen diela, ikasketa-emaitzak bidezko egiten dituela, pobrezia murrizten duela, eta gizarte-mugikortasuna hobetzen duela belaunaldiz belaunaldi.

²Dorado Rubí, M.J. (2014): "La escolarización temprana a examen: diferentes dimensiones de su extensión en España" (155-173 or.), *Crisis y Cambio: propuestas desde la Sociología* liburuan, II. Atala. Espainiako Soziologia XI Kongresuaren aktak, Complutense Unibertsitatearen Politika eta Soziologia Zientzien Fakultatea, Madrid.

- **Dirudienez, haurren eskolatze goiztiarrak aukera-berdintasuna sustatzen du.**

Pablo de Olavide unibertsitateko M. Hidalgo-Hidalgok eta J.L. García-Pérezek ikerlan bat egin dute (*Impacto de la asistencia a Educación Infantil sobre los resultados académicos del estudiante en Primaria*)³ Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleek IEAk sustatutako PIRLS eta TIMSS nazioarteko ebaluazioetan lortutako emaitzetan oinarriturik⁴: Ikerlan horren arabera: "*Haurrak Haur Hezkuntzan eskolatu daitezen sustatzeak eragin onuragarria du oro har ondorengo errendimendu akademikoan eta, baita ere, aukera-berdintasun bidezkoagoan, erlatiboki gehiago laguntzen baitie profil apalagoa duten ikasleei (senideen ikasketa-mailaren aldetik edo jaiotze hiruhilekoaren aldetik)*".

Ikerlanaren egileek honela jarraitzen dute: "*hezkuntza politikaren diseinua zuzena izateko Haur Hezkuntzaren garrantzia behar bezala ulertu behar da. Alde batetik, sektore publikoaren kostuei begira, hezkuntza-etapa horretan inbertitzea estrategia egokia da; Haur Hezkuntzak epe laburrean sortzen duen gastua hezkuntza berezirako eta antzeko programetarako gastuaren murrizketarekin orekatu daiteke. Beste aldetik, epe luzean ere gizarte-gastuen murrizketa lortu liteke, hala nola langabeziagatik diru-laguntzak, osasun-politikak eta abar*".

Ondorioa argia da: ezinbestekoa da familia guztiek, kaltetuenek bereziki, kalitate handiko Haur Hezkuntzan eskolatzeko aukera izan dezaten eta aukera hori etxetik hurbil izan dadin.


³ Hidalgo-Hidalgo, M. eta García-Pérez, J.L. (2013): "*Impacto de la asistencia a Educación Infantil sobre los resultados académicos del estudiante en Primaria*", PIRLS-TIMSS 2011. Estudio Internacional de progreso en comprensión lectora, matemáticas y ciencias. II. Atala: Informe español. Análisis secundario, Ministerio de Educación, Cultura y Deporte- INEE, Madrid.

⁴ PIRLS (Progress in International Reading Literacy), TIMSS (Trends in International Mathematics and Science Study) eta IEA (International Association for the Evaluation of Educational Achievement).

1.2. JAIOTZA KOPURUAREN BILAKAERA EUSKADIN

Euskadin, krisialdi ekonomikoa gorabehera, jaiotza kopurua egonkor mantendu zen 2008tik 2011ra bitartean, urteko 21.000 jaiotzatatik gora. Joera hori 2012an aldatu egin zen, eta horrela adierazi du Euskadiko Eskola Kontseiluak *Hezkuntza Euskadi. 2012-2013 Txostena*⁵, bere azken txostenean, Euskadiko hezkuntza-sistemaren aldi horretako egoera aztertzen duenean.

Eustaten datuetatik hartutako ondorengo grafikoan jaiotza kopuruak 1998tik 2013ra (eskuragarri izan diren azken datuak)⁶ izan duen bilakaera azaltzen da, eta horrekin batera 1.000 biztanleko jaiotza-tasak aldi horretan izan duen bilakaera.



Jaitsiera nabarmena ikusten da bai jaiotza kopuruan, baita 1.000 biztanleko jaiotza-tasan ere. Eskuragarri dauden datuen arabera, atzerriko amengandik jaiotako haurren kopurua igo egin zen, 2013an Euskadin jaiotako haur guztien % 17,7 izatera heldu zelarik.

Jaiotza kopuruari lotutako datu hauek garrantzitsuak dira, aldagai hori nagusienetako bat da eskolatzeko beharrak etorkizunera proiektatzerakoan, eta, baita ere, immigrazio-prozesuen ondorioz gertatzen diren gizarte-mugimenduak proiektatzerakoan. Hori dela eta, ezinbestekoa da datozen urteetan Haur Hezkuntzako matrikularen jaitsiera izango dela aintzat hartzea, Euskadiko hezkuntza-sisteman eragin handia izango duelako, 2011tik 2013ra, 1.000 biztanleko jaiotza-tasan %1 inguru galdu baitzen.

⁵ Euskadiko Eskola Kontseilua (2015). *Hezkuntza Euskadin, 2012-2013*. Vitoria-Gasteiz.

⁶ 2012 eta 2013ko datuak behin-behinekoak dira, web gunean esaten den bezala www.eustat.eus.

1.3. SEI URTETIK BEHERAKO HAURREN ESKOLATZEA

1.3.1. HAUR HEZKUNTZAKO LEHEN ZIKLOA

Euskadin 2012-13 ikasturtean bi urtetik beherako haurren %38,6 ikastetxeetan eskolaturik egon zen. Ondorengo taulan biltzen dira ikastetxe publikoetako datuak (Haurreskolak Partzuergokoak eta haurrentzako udal eskoletakoak) eta ikastetxe pribatuetaoak (haurrentzako eskolak eta itunpeko ikastetxeak).

0-2 urteko haurren matrikularen bilakaera Euskadin hezkuntza-sarearen arabera.

	2011-2012	2012-2013	^ azken ikasturtean
Publikoa	7.175	6.954	-221
Pribatua	6.584	6.501	-83
Guztira	13.759	13.455	-304

Iturria: Hezkuntza Euskadin 2012-2013. Euskadiko Eskola Kontseilua.

2 urtekoen irakasmilan, txosten horren arabera, eskolatzeta-tasa apur bat baxuagoa da, % 93,2.

2 urteko haurren matrikularen bilakaera Euskadin hezkuntza-sarearen arabera.

	2011-12		2012-13		^ azken ikasturtean	
	Matrikula	% estaldura	Matrikula	% estaldura	Matrikula	estaldura
Pub.	10.990	% 52,5	10.932	% 51,7	-58	-0,8
Prib.	8.647	% 41,3	8.787	% 41,5	140	0,2
Guztira	19.637	% 93,8	19.719	% 93,2	82	-0,6

Iturria: Hezkuntza Euskadin 2012-2013. Euskadiko Eskola Kontseilua.


Haur Hezkuntzako lehen zikloan matrikulatutako ikasle kopuruaren igoera autonomia erkidego guztietan gertatu da. Hezkuntza Ministerioaren Instituto Nacional de Evaluación Educativa (INEE) erakundeak argitaratutako Adierazleen Estatuko Sistemako datuen arabera (eskuragarri dauden azken datu konparagarriak) eskolatzeta-tasa 7,5 puntu igo da urte batetik beherako haurren kasuan; 22,6 puntu urte batekoen kasuan; eta 28,9 puntu bi urtekoen kasuan. Estatu mailan hiru adin horietako eskolatzeta-tasak % 9,7, % 31,8 eta % 49,8 dira hurrenez hurren.

Hezkuntza-etapa horretako lehen zikloari dagokionez, Euskadiren kasua bitxia da gainerako autonomia erkidegoekin konparaturik. 90eko hamarkadaren hasieran, Euskadin hiru urteko haurren eskolatzeta-tasa % 100 ingurukoa zen, Espainiako batez bestekoa % 40ra heltzen ez zelarik. 2011-12 ikasturtean Euskadiko 2 urteko haurren eskolatzeta-tasa % 94 zen, eta Espainiako batez bestekoa, % 50; urte batekoen kasuan, Euskadikoa % 44 zen, eta Espainiako batez bestekoa, % 31,8; urte batetik beherako haurren kasuan, Euskadikoa % 24,4 zen, eta Espainiako batez bestekoa, % 9,7.

1.3.2. HAUR HEZKUNTZAKO BIGARREN ZIKLOA

Euskadin Haur Hezkuntzako bigarren zikloko matrikularen igoera jarraikia gertatu da. 2012-13 ikasturtean aurreko ikasturtearekiko igoera txikia (% 0,6) izan zen, guztira 63.470 haur matrikulatu zirelarik. 1999-2000 ikasturtetik matrikulak igoera nabarmena (% 26) izan du.


1.3.a. grafikoa. Haur Hezkuntzako bigarren zikloko matrikularen bilakaera 1999-2013. EUSTATen datuak



INEEren adierazleen estatuko sistemaren arabera, Haur Hezkuntzako bigarren zikloko eskolatzetasa autonomia erkidegoetan desorekatua da. Hiru urteko haurren eskolatzetasa 3,1 puntu igo da 2001-02 ikasturtetik, 2011-12 ikasturtean %95,1 izatera heldu arte. Lau urtekoen eta bost urtekoen eskolatzetasei dagokienez, jaitsiera bat izan da aztertutako hamarraldiaren hasierako eskolatzetasa oso-betetik %97 ingurura. Hala ere, txostenak dioenez, aldaketa horiek agian biztanleriaren benetako bilakaeraren eta erabiltzen diren kalkuluen arteko desoreken ondorio izan litezke.

Hezkuntza-etapa horretan Euskadiko egoera eta gainerako autonomia erkidegoetakoa konparatzeko, oso adierazgarria izango litzateke Haur Hezkuntzako batez besteko eskolatzetateen kopurua aztertzea. Aztertutako azken ikasturtean, Haur Hezkuntzako eskolatzetateen batez besteko kopurua Espainian 4 urtekoa da ia. Ondorengo grafikoan autonomia erkidego guztietako datua azaltzen da 2001-02, 2006-07 eta 2011-12 ikasturteetarako: estatuko batez bestekotik gora Euskadi, Katalunia eta Madril bakarrik daude.


E2.1. grafikoa eta 2. taula: Haur Hezkuntzako eskolatze-urteen batez besteko kopurua autonomia erkidegoetan (0-5 urte) *INEEtik hartutakoa*.



1.3.3. NAZIOARTEKO EGOERA

Nazioarteko konparazioan, Euskadik 2011-12 ikasturtean Europako herrialde eta erkidegoen artean eskolatze-tasarik altuenetakoa izan zuen Haur Hezkuntzako adin guztietan, Europako batez bestekoa aise gainditu zuelarik. Espainia ere toki onean izan zen hiru urteko eta lau urteko haurren kasuetan.

1.3.c. grafikoa. 3 eta 4 urteko haurren eskolatze-tasa EBko herrialdeetan. 2010-11 ikasturtea.



Nazioarte mailan, haurtzaroari eman beharreko erantzuna dela eta, ez dago batere adostasunik. Herrialde bakoitzak bere eredua du familiei eta haurtzaroari laguntza emateko orduan, *OCDE Family Data Base* agirian⁷ ikus daitekeen bezala. Gure ingurune hurbilean haurrak eskolatzearen aldeko apustua egin da, baina beste herrialde batzuetan gurasoentzako eta haurrentzako beste mota bateko zerbitzuak lehenesten dira, edo familiak haurrak zaintzea lehenesten da amatasun-baimenak luzatuz, lan-ordutegi malguagoak finkatuz edo familiei diru-laguntza handiagoak emanez.

1.4. HAURRESKOLAK PARTZUERGOA

EAEren legeen esparruan, Haur Hezkuntzako curriculumak finkatzen duen Dekretuak (12/2009, urtarrilaren 20koa. EHAA 2009-01-30), 3. eta 4. artikuluetan honela dio: "*Haur Hezkuntza borondatezkoa da, eta sei ikasturteko iraupena du*", eta "*Haur Hezkuntzaren helburua haurren garapen fisiko, intelektual, afektibo eta sozial osoa eta orekatua lortzea da*".

Horrez gain, *Heziberri 2020* dokumentuak (EHAAn argitaratua izateko) *Oinarritzko Hezkuntzako Curriculumak: Haur Hezkuntza* (2014-10-27ko bertsioa) eranskinean etapako bi zikloetarako konpetentziak, arloak eta edukiak finkatzen ditu.

Euskal Autonomia Erkidegoko 0-3 urteko haurrentzako eskolak arautzen zituen 297/2002 Dekretuaz geroztik, zenbait agiri arauemaile izan dira haur txikientzako hezkuntza-eskaintza definitzeko.

Lehen zikloko plaza publikoen kopurua handitzeko, eta *Familiei laguntzeko Erakundearteko I. Planaren* ondorioz, 2003ko irailean Haurreskolak partzuergoa sortu zen. Geroago, *Euskal Autonomia Erkidegoko familiei laguntzeko Erakundearteko III. Plana*. 2011-2015⁸ agiriak bigarren atalean honela dio:

"Aurreko mendeko azken hamarkadetan emandako hainbat aldaketa sozialek (emakumearen emantzipazioa, bere laneratzea, erlazio afektibo-sexualen askapena, gutxiengoaren eskubide zibilen zabalketa...) eta bizitza sozialaren konplexutasunak ondorio batzuk ekarri dituzte gaur nagusitzen den familia ereduaren. Hartara, gaurko gizartearen puzzle konplexua osatzen duten familia eredu anitzak (nuklearra, guraso bakarrekoa, pertsona bakarrekoa, berriz eratutako kultura artekoak, homoparentalak e.a.) eman dira. Modu paraleloan, sozialki ezarritako funtzioak era autonomoan aurrera eramateko familiaren ahalmenaren garaia bukatu da. Gero eta gehiago existitzen dira sustapena eta laguntza behar dituzten familia sistemak".

*Seme-alabak dituzten familiei laguntzeko Erakundearteko I. Plana*⁹ Eusko Jaurlaritzaren zenbait sailen eta foru eta udal erakundeen arteko elkarlanaren ondorioz sortu eta 2003an

⁷ <http://www.oecd.org/els/soc/oecdfamilydatabase.htm>

⁸ EAEko familiei laguntzeko Erakundearteko III. Plana. 2011-2015: http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.net/r45-docuinfo/es/contenidos/informacion/6199/es_2284/adjuntos/III_plan_familia_def.pdf


⁹ http://www.ej-gv.net/familias/familias_c.htm

argitaratu zen. Bere helburua "Oztopo ekonomikoak eta sozio-laboralak kentzea familiek aske erabakitzen duten beste seme-alaba izan dezaten". Laneko bizitza eta familiaren bizitza bateratzeko politikaren esparruan, I. Planak "Sentsibilizazio neurriak" aipatzen zituen, eta, baita ere, "laguntza ekonomiko eta fiskaletarako neurriak" eta "familiarentzako laguntza-neurriak".

Aipatutako politika publikoen ondorioz, *Haurreskolak partzuergoa* sortu zen, 0-2 urteko haurrentzako eskola publikoak kudeatzen dituen erakunde publikoa. Herri txikietan ikastetxeak irekitzen hasi ziren, eta *Haurreskolak partzuergora* askotariko haurrentzako eskolak sartu ziren. Gaur egun, hamar urte iragan ondoren, Hezkuntza Sailaren menpeko ikastetxe sare bat dugu, eta udalen parte hartzea ezinbestekoa izan da sarea zabaltzeko.

2014ko urtarileko datuen arabera, "*Haurreskolak partzuergoak haurrentzako 228 ikastetxe ditu 176 udalerritan banaturik. Ikastetxe horiek 8.111 plaza dituzte 0-2 urteko haurrentzat. 2014ko irailean 8.200 plaza izango ditu. Aurtengo ikasturtean partzuergoak 5.500 haur eskolatzen ditu eta 1.200 hezitzaile eta ehun ordezkari lana ematen die. Bere hamar urteko ibilbidean Haurreskolak Partzuergotik 35.000 bat haur pasatu dira.*"¹⁰

Galdera-sorta egin zen garaian, 2014ko ekainean, 168 udalek hitzarmen bat zeukaten *Haurreskolak Partzuergoarekin* (udal batzuek ikastetxe batzuekin). Izan ere, 96 ikastetxe zeuden lanean Bizkaian, 89 Gipuzkoan eta 43 Araban, guztira 5.903 haur matrikulaturik zeudelarik.



¹⁰ http://ccaa.elpais.com/ccaa/2014/01/22/paisvasco/1390395917_373210.html

Haurreskolak Partzuergoak hasierako haurtzaroak eta familiek dituzten beharrei erantzuteko hezkuntza-zerbitzua eskaintzen du. Ikastetxearen tamainaren arabera eta familien eskarien kopuruaren arabera finkatzen dira sartzeko eta irteteko ordutegiak. *Partzuergoak* urtean 208 egunetan eskolatze zuzena eskaintzen du, eta familiek ordain-sari bat ordaintzen dute haurrak ikastetxean ematen dituen orduen kopuruaren arabera. Familien esku geratzen da bazkaria etxetik eramatea edo catering zerbitzua erabiltzea.

Web gune ofizialean –www.haurreskolak.eus– informazio ugaria dago ikastetxeen kokaguneari buruz, hezkuntza planteamenduei buruz eta lege-araudiei buruz. Atal berezi bat dago ikastetxeak erakusteko, berdintasunari lotutako beste atal bat eta beste bat askotariko informazioa emateko. Horrez gain, Enplegu Eskaintza Publikoari buruzko bi atal berezi daude, eta esparru mugatu bat.

2. IKERLANAREN EZAUGARRIAK

2012ko ekainean *Haurreskolak Partzuergoaren* eta Irakas-sistema Ebaluatze eta Ikertze Erakundearen (ISEI-IVEI) arteko lankidetzak hitzartu zen. Hasteko familientzako galdera-sorta definitu zen, *Haurreskolak Partzuergoaren* ikastetxeetako errealitatea ongi ezagutzeko eta ebaluazio irizpideak finkatzeko.

2.1. IKERLANAREN HELBURUAK

Ikerlan honen helburu nagusia *Haurreskolak Partzuergoaren* ikastetxeetako egoera ezagutzea da eta, baita ere, familiek ikastetxe horietan egiten den lana nola baloratzen duten ezagutzea.

Ikerlanean lortzen diren emaitzetan oinarriturik, ekintza berriak definitu ahal izango dira, eta, horrekin batera, ikastetxe-sare bezala hobetzeko irizpideak finkatu eta 0-3 urteko haurren eskolatzea hobetzeko iradokizunak jaso.

Ikerlanaren helburu zehatzak honako hauek dira:

- Seme-alabak *Haurreskolak Partzuergoan* dituzten familien zenbait ezaugarri ezagutzea.
- Familiek *Haurreskolak Partzuergoaren* zerbitzuaz duten iritzia jasotzea.
- *Haurreskolak Partzuergoaren* ikastetxeen kalitatea ebaluatzea.

2.2. IKERLANAREN DISEINUA ETA METODOLOGIA

ISEI-IVEIk sortu zenetik hainbat inkesta egin izan ditu nazioarteko, estatuko eta gure autonomia erkidegoaren barneko ebaluazioetan parte hartu duten familien, ikasleen eta zuzendaritza taldeen artean. Oraingo honetarako, 2009tik 2014ra Lehen Hezkuntzako 4. mailan egindako ebaluazio diagnostikoetan erabilitako galdera-sorta erabiltzea erabaki zen. 2013ko udan bildu ziren datuen analisiaren ondorioz, ISEI-IVEIk 2014ko martxoan "Haurreskolak Partzuergoaren ikastetxeen azterketa eta balorazioa"¹¹ ikerlana argitaratu zuen.

Familientzako galdera-sortari Interneten bidez erantzun zieten. ISEI-IVEIren Metodoen Taldeak aplikazio informatiko bat diseinatu eta abiarazi zuen, eta *Haurreskolak Partzuergoko* ikasle bakoitzari "erabiltzaile" izena eta bi pasahitz eman zitzaizkion. Hari esker, haur bakoitzeko galdera-sortara guraso bat edo bi sar zitezkeen. Aplikazio informatikoak aukera ematen zuen aurrera joateko, atzera joateko eta galderak erantzun gabe uzteko.

Haurreskolak Partzuergoak, ikastetxe bakoitzeko hezitzaileen bitartez, familiei kodeak eta URL helbidea jakinarazteko ardura hartu zuen, eta ISEI-IVEIko taldeak aplikazio informatikoaren ardura eta ondorengo datuen trataeraren ardura hartu zuen, prozesu osoaren isilpekotasuna bermatu zuelarik.

¹¹ http://www.isei-ivei.net/eusk/argital/haurreskolak/exekutiboa_Haurreskolak_eus.pdf

2.3. GALDERA-SORTAREN EZAUGARRIAK

Lankidetzaren prozesuaren ondorioz, 24 galderako galdera-sorta bat prestatu zen, bost atal hauetan banaturik:

- **Familien profila.** Atalik luzeena, askotariko galderak sartzen baitira: jaiotze data eta lekua, gurasoen lana eta ikasketa-maila, etxearen zenbait ezaugarri, senideen kopurua, etxeko hizkuntza, familian egiten diren jarduerak eta beste batzuk. Prestakuntzari buruzko galdera ireki bat ere badago.
- **Ikastetxeko instalazioak eta zerbitzuak.** Atal honetan 15 alderdiren balorazioa eskatzen da, (adibidez, espazioak, ordutegiak, baliabideak, segurtasuna...) oso desegokia, desegokia, egokia, oso egokia eskala batean.
- **Parte hartzea eta elkarlana.** Atal honetan 11 galdera egiten dira ikastetxearen eguneroko funtzionamenduari buruz, adibidez, taldeko bilerak, banakako elkarriketak, materialen trukea, jardueretan parte hartzea, eguneroko informazioa eta abar. Erantzun itxia eskatzen da: bai ala ez.
- **Hezkuntza-lana.** Atal honetan hezkuntza eta antolamendu alderdiak aztertzen dira. Hezkuntza alderdien artean gizonen eta emakumeen berdintasuna, haurren garapena, behar pertsonalei nola erantzun eta abar aipatzen dira. Antolamenduaren alderdietan balorazioa eskatzen da egokitze prozesuari, bilereiei, txostenei eta abarrei buruz.
- **Balorazio orokorra.** Atal honek bukaera ematen dio galdera-sortari hiru galderekin. Lehenengo bietan gogobetetze orokorrari buruz galdetzen da, eta azken galderan lau bat lerroko espazio irekia eskaintzen da.


Galdera askotan zenbait ataletan erantzun itxia eskatzen da, bi galderatan izan ezik, erantzun irekikoak baitira. Izan ere, galdera-sortaren bukaerako espazio irekian 815 pertsonen euren iradokizunak, balorazioak, zorionak edo eskariak idatzi zituzten.

2.4. BILDUTAKO LAGINAREN DESKRIPZIOA

Hasierako populazioaren %32,84k bete du galdera-sorta. Hain zuzen ere, 2014ko ekainean *Haurreskolak Partzuergoan* matrikulatutako 5.904 ikasletatik 1.939 familiek erantzun zuten. 2013an 1.664 erantzun jaso ziren, hots, %26,7.

Aintzat hartu behar da haur bakoitzak bi pasahitzetako kodea zuela, bi gurasoek erabili ahal izateko. Izan ere, 332 pertsona sartu ziren erabiltzaile-izen bera eta bi pasahitzak erabiliz. hau da, bi gurasoek erantzun zuten.

2.4.a. grafikoa. Galdera-sortari erantzun dioten familien ehunekoa .



Lurraldeen arabera parte hartzeari dagokionez, Bizkaiko 91 ikastetxetako familiek erantzun zuten, Gipuzkoako 82 ikastetxetakoek eta Arabako 39 ikastetxetakoek, parte hartzea 2013koa baino apur bat hobeagoa izanik. Hala ere, 15 ikastetxetan (2013an baino 3 gehiago) inongo familiak ez zuen erantzun, ezta koderik erabili ere (Arabako 4, Bizkaiko 4 eta Gipuzkoako 7).

- Familia gehienek (% 64) gaztelaniaz bete zuten galdera-sorta. Heren batek baino apur bat gehiagok (%35) euskaraz bete zuten. Ehunekoak 2013koen antzerakoak izan ziren.
- Inkesta bete zuten gurasoen % 77 amak ziren (1.530), eta % 20 bakarrik, aita (397). Ehunekoak ez ziren nabarmenki aldatu 2013ko datuekiko.
- Laginaren sexuaren aldetiko banaketa nahiko orekatua zen: % 46,8 neskak ziren eta % 53,2 mutilak.
- 815 pertsonak (2013an baino 76 gehiagok) idatzi zuten euren iritzia edo iruzkina galdera-sortaren azken galdera irekian.

3. FAMILIEN EZAUGARRIAK

3.1. EZAUGARRI SOZIO-EKONOMIKOAK ETA PRESTAKUNTZAKOAK

Familientzako galdera-sortako galdera batzuk gurasoen ezaugarri pertsonalei buruzkoak dira (adibidez, jaioturtea eta lekua edo ikasketa-maila). Horrez gain, hainbat datu eskatzen zaizkie etxean dituzten baliabideei buruz (adibidez, liburuak edo gela kopurua).

Bildutako informazioari esker, lagineko familien profil orokorra egin ahal izan da, eta datu horiek urte horretan Lehen Hezkuntzan egindako Ebaluazio Diagnostikoan bildutakoekin gurutzatu daitezke. Gurasoen maila sozio-ekonomikoa ezagutzeak hezkuntza-erakundeei lana egokiago egiteko eta ikasleen garapena hobetzeko aukera ematen die.

Jarraian horren inguruko alderdirik garrantzitsuenak azaltzen dira:

- Lagineko haurren % 94,9 2012an (% 56,2) eta 2013an (% 38,7) jaioak dira. Ama gehienak (% 59,1) 1976tik 1981era bitartean jaioak dira, hots, 34-39 urte bitartekoak dira. Denbora tarte horretan jaiotako aitek gutxiago dira (% 51,5). Ehuneko hori 13,3 puntu igotzen da 1973 eta 1974 urteak ere kontuan hartzen badira.
- Jaioterriari dagokionez, haurren gehiengo handi bat (% 97,9) Euskadin jaioak dira. Euskadin jaiotako aiten ehunekoa (% 89,1) eta amena (% 88,1) txikiagoak dira.
- Euskaditik kanpo jaiotako haurren artean, 10 atzerrian jaioak dira eta 29 beste autonomia erkidego batean. Ez dago daturik Haurreskolak Partzuergoan matrikulatutako haur etorkinen ehunekoari buruz.
- Senideen ikasketa-mailarik altuena aztertzerakoan, aiten %87,4k eta amen % 96,2k derrigorrezko hezkuntzaren osteko ikasketak dituztela ikusten da. Batxilergoko ikasketak eta unibertsitateko ikasketak dituzten aiten ehunekoak antzerakoak dira. Hala ere, amen kasuan, unibertsitateko ikasketak dituztenen ehunekoa (% 70) Batxilergoa edo LH ikasi dutenen ehunekoa baino ia hiru aldiz handiagoa da, ondorengo taula honetan azaltzen den bezala:

Gurasoen ikasketa mailarik altuena

	aiten %	amen %
Oinarrizkoak bukatu gabe	1,8	0,4
Derrigorrezkoak bukatuta	10,8	3,4
Batxilergoa, LH...	45,6	26,2
Unibertsitatekoak	41,8	70,0

- Gurasoen lana dela eta, langabezia dauden amen ehunekoa (%8,9) aiten (%5) baino apur bat handiagoa dela ikus daiteke, eta bai aiten lana bai amena maila ertain-altukoa dela; hau da, lanbide kualifikatuen taulan goi mailan daude.

- Familia motari dagokionez, ikasle gehienak (% 93,7) bi gurasoei bizi dira, eta gutxiengo bat (% 2,6), amarekin bakarrik.
- Familiak dituen baliabideei dagokionez, datuak falta dira Haurreskolak Partzuergoan matrikulatutako populazioaren irudi orokorra lortzeko. Jarraian, inkesta bete duten familien erantzunak azaltzen dira. Taulan ehunekoen bi zutabe daude: lehena, galdera-sortari 2013an erantzun zioten familien erantzunen ehunekoena da; bigarrenak 2014ko datuak jasotzen ditu.

Azken urteko egoera eta etxean dauden baliabideak	2013	2014
Ipuina, haur literatura formatu ezberdinetan (liburua, CDa, DVDa ...)	% 94,9	% 90,0
Interneteko konexioa	% 94,1	% 90,7
Haurrak bere logela du	% 76,7	% 72,2
Entziklopediak, hiztegiak edo kontsulta liburuak	% 74,3	% 70,1
Familiak oporretan egun batzuk eman ditu hotel, kanpin, landetxe edo apartamentu batean	% 66,9	% 69,5
Aldizkari espezializatuak edo teknikoak	% 49,8	% 49,3
Literatura klasikoko liburuak	% 40,1	% 39,0
Etxeko lanak familiatik kanpoko pertsona batek egiten ditu	% 19,7	% 21,4
Egunkaria egunero	% 19,5	% 17,0
Altzari egokituak, protesiak (premia bereziak)	% 5,2	% 3,9

Ikus daitekeenez, *Haurreskolak Partzuergoko* familien ezaugarri batzuk oso antzerakoak dira bi urteetan, eta lagungarriak dira seme-alabak dituzten Euskadiko familien profila egiteko. Adibidez, % 94k eta % 90,7k Interneteko konexioa dute; EUSTATEk dioenaren arabera "*etxean zerbitzu hori duten familiak % 58,4 dira, milioi erdi bat baino apur bat gehiago*" (EAEko familiei informazioaren gizarteaz egindako inkesta. 2012)¹².

- Lagineko etxeetan dituzten objektuei eta espazio jakinei dagokionez, gehienak ongi hornituak daudela ikus daiteke.

Aurreko atalean etxeko baliabideekin gertatzen zen bezala, atal honetan ere Haurreskolak Partzuergoko familien erantzunetan antzerako ehunekoak izan dira 2013an eta 2014an.

	Bat ere ez	Bat	Bi	Hiru	Lau edo gehiago
Ordenagailuak	% 1,8 % 1,9	% 49,2 % 52,3	% 36,7 % 35,4	% 9,5 % 8,2	% 2,9 % 2,2
Autoak	% 1,0 % 1,5	% 30,3 % 31,2	% 65,2 % 63,6	% 2,9 % 3,2	% 0,6 % 0,5
Bainugelak	% 0,3 % 0,4	% 33,1 % 35,5	% 58,8 % 57,7	% 6,7 % 5,7	% 1,0 % 0,7
Logelak	% 0,1 -	% 0,8 % 0,7	% 27,5 % 30,7	% 64,2 % 62,9	% 7,4 % 5,7

¹² http://www.eustat.es/elementos/ele0008900/ti_Mas_de_medio_millon_de_hogares_de_la_CA_de_Euskadi_tiene_conexion_a_Internet_en_2012/not0008979_c.html#axzz2mJnoAW6x

Aipatu beharrekoa da *Haurreskolak Partzuergoan* seme-alabak dituzten gurasoen % 90ek etxean ordenagailu bat edo bi dituztela, eta horrelako ekipamendu informatikorik ez dutenak ez direla % 2ra heltzen. Familien % 60k baino gehiagok bi auto dituzte eta autorik ez dutenak % 1,5 bakarrik dira.

Espazioei dagokienez, ehunekoak antzerakoak dira: familien % 63 hiru logelako etxeetan bizi dira, eta % 60 inguruk bi bainugela dituzte etxean.

- Etxean dauden liburuen kopurua ondorengo taulan jasotzen da, 2013an egindako inkestako ehunekoekin konparaturik. Ikus daitekeenez, ehunekoak oso antzerakoak dira bi ikerlanetan.

Liburuak etxean	0-50	50 - 100	100 - 200	200-500	> 500
2013	% 39,8	% 26,3	% 17,0	% 12,2	% 4,7
2014	% 36,4	% 30,3	% 18,1	% 12,4	% 2,8

Inkestari erantzun dioten familia gehienek ez dute liburu kopuru handirik etxean: herenak baino gehiagok ez du 50 liburutik gora, eta %15ek bakarrik dute 200 baino gehiago. Datuak 2013ko inkestan jasotakoen oso antzekoak dira.

3.2. HIZKUNTZAREN ALDETIKO EZAUGARRIAK

Galdera-sortan galdera batzuk egiten dira etxean gehien erabiltzen den hizkuntzari buruz, seme-alabarekiko harremanetarako hizkuntza nagusiari buruz eta bikote-harremanetarako hizkuntzari buruz.

- Etxeko hizkuntzari dagokionez, inkesta bete duten pertsonen %56,4k erantzun du seme-alabarekin beti edo ia beti euskaraz hitz egiten dutela. %40,5ek erantzun du seme-alabarekin beti edo ia beti gaztelaniaz hitz egiten dutela. Bikotekidearekin erabiltzen duten hizkuntzari dagokionez, gaztelaniaren presentzia igo egiten da %71,7ra; gaztelania etxeko hizkuntza bezala (afariak, jolasak, telebista...) %59,9k erabiltzen dute.

3.3. JARDUERAK FAMILIAREN INGURUNEAN

Inkestan zenbait galdera sartzen dira gurasoek seme-alabekiko duten jarrerari buruz eta eguneroko jarduerari eta egoerei buruz. Galdera horiek loturik daude haurren garapenari eragiten dioten harreman estilo pertsonalekin eta eguneroko jokabideekin.

- Familiaren inguruneari eta harremanei dagokienez, galdera-sortako jarduera guztiak maiztasun handiz gauzatzen dira lagineko familietan. Aipatu beharrekoa da familien %72,3k erantzun duela seme-alabari ipuinak *sarri samar edo askotan* kontatzen eta irakurtzen dizkiotela. Irakurketaren inguruko jarduerak oinarri-oinarrizkoak dira

bizitzaren hasierako urteetatik. Ondorengo taulan *sarri samar* + *askotan* ataletako erantzunak bildu dira ikuspegi orokor bat izan ahal izateko. Horrez gain, ikerlanaren bi edizioetako datuak konparatzen dira:

	Sarri samar + askotan	
	2013	2014
Irribarre egin eta seme-alabari irribarrea itzuli	% 99,8	% 99,9
Seme/alabari argi hitz egin aurpegira begiratzuz	% 98,0	% 98,4
Laztandu eta masaje leunak eman	% 96,3	% 96,9
Musika entzun, kantatu	% 92,5	% 92,1
Ipuinak kontatu eta irakurri	% 72,8	% 72,3

- Haurren eguneroko zaintza-lanez arduratzen diren ala ez galdeturik, familia gehienek *askotan* erantzun dute, eta horrek adierazten du gurasoek lan horietan ardura handia dutela. Jarraian zaintza-lan bakoitzerako emandako erantzunak azaltzen dira, *sarri samar* eta *askotan* ehunekoak baturik:

	Sarri samar + askotan	
	2013	2014
Higienea, pixoihalak aldatu...	% 97,7	% 97,9
Haurrari jaten eman	% 95,3	% 94,3
Haurra bainatu	% 92,0	% 92,0
Pediatría kontsultara joan	% 91,7	% 92,1
Haurrari loak hartzen lagundu	% 89,7	% 90,9

Jarduera horiek haurren bizitzaren eguneroko uneei loturik daude, bai etxean bai ikastetxean, eta oso egokiak dira hurrek pertsona helduekiko harremanak, eragin-trukeak eta elkarrizketak izan ditzaten. Garrantzitsua da, alde batetik, familiek hezitzaileek horrelako jarduerari (jaten ematea, higiena, loa eta jolasa) nolako garrantzia ematen dieten ongi ezagutzea, eta bestetik, familiaren ingurunean zaintza-lanetan emakumeak eta gizonak berdin arduratu daitezen.

- Nolako gaien inguruan eskuratu nahi zenukete informazio edo prestakuntza gehiago?* galderari erantzunez, familia askok hainbat gairen inguruan erakutsi dute interesa. Gainera, 87 pertsonen inkestan ez dauden gai berriak aipatu dituzte, adibidez, garapen ebolutiboa, emozioak, harremanak, amorraldiak e.a.

Hezkidetzaz azpimarratu beharko genuke, inkesta bete duten pertsonen erdiak baino gehiagok (% 55,7) gai horri buruzko interesa adierazi baitu. Dirudienez, haurren hazkuntzari dagozkion gaien inguruko prestakuntza beste leku batean jasotzen dutela (higieneak eta loak, adibidez, interes gutxiago piztu dute).

Era berean, guraso askok uste osoa dute hezkuntza-eskaintzan *osasuna* (% 50,1), *elikadura* (% 47,5) edo *esfinterren kontrola* (% 36,4) bezalako gaien inguruko informazioa eta prestakuntza jasotzeko. Jarraian inkestan planteatutako gaiak azaltzen dira, bakoitzari emandako erantzun positiboen ehunekoarekin:

Higienea	% 16,1
Loa	% 27,6
Esfinterrak	% 36,4
Elikadura	% 47,5
Osasuna	% 50,1
Hezkidetza	% 55,7

Gai nagusi horiekin batera aurreko atalean aipatutako beste jarduera batzuk (musika, ipuinak, hizkuntza, masajeak...) ere sartu beharko lirateke, haurraren garapenerako oinarri-oinarrizkoak baitira.

4. HAURRESKOLAK PARTZUERGOKO IKASTETXEEN BALORAZIOA

4.1. GOGOBETETZE MAILA OROKORRA

Ondorengo taula eta grafikoetan lagineko familiek adierazitako gogobeteze mailari dagozkion emaitzak azaltzen dira.

Hain zuzen ere, lehen taulak galdera horretako balorazio-gradueta erantzunen ehunekoak jasotzen ditu. Ikus daitekeenez, erantzun gehienak oso positiboak dira eta gogobetetze oso maila altua erakusten dute Haurreskolak ikastetxeekiko.


**Haurreskolak ikastetxean jasotako zerbitzuarekiko
gogobetetze mailaren bilakaera**

	2013	2014
Oso baxua	0,7	0,9
Baxua	0,9	1,0
Altua	21,9	22,6
Oso altua	73,7	75,5

Hurrengo grafikoan galdera-sorta bete dutenen erantzunen ehunekorik aipagarrienak ordenaturik daude. Gogobetetze maila baxua edo oso baxua adierazi duten erantzunak ez dira %2ra heltzen, eta familien gehiengo handi batek gogobetetze maila altua edo oso altua adierazi du. Gogobetetze oso maila altuaren ehunekoetan jaitsiera txiki bat izan da, 2013an %98,4 izatetik 2014an %98,1era izatera pasa baita.


Datu horiek baliagarriak dira ikuspegi orokor oso positiboa ematen dutelako. Ikuspegi hori, atal jakinetako erantzunak aztertzen direnean, gurasoek adierazten dituzten desadostasunarekin eta iradokizunekin osatu daiteke.

4.1.a. grafikoa. Haurreskolan jasotako zerbitzuarekiko gogobetetze mailen ehunekoen bilakaera.



Haurreskola hau gomendatuko zenuke? galderak harreman zuzena du aurrekoarekin, *Gogobetetze maila*. Ondorengo grafikoan aukera bakoitzeko ehunekoak jasotzen dira:

4.1.b. grafikoa. Haurreskola hau gomendatuko zenuke?
galderaren erantzunen bilakaera.



Ikus daitekeenez, emaitzak koherenteak dira aurreko galderarekin. Oraingo honetan, 2014ko inkesta bete dutenen % 98k dio seme-alaba eskolatuta dagoeneko ikastetxea gomendatuko lukeela, eta ehunekoa 2014an gogobetetze maila “altua” edo “oso altua” dela dioten %98,1en antzekoa da.

Zerbitzuaren balorazioa ezin hobea izan bada ere, aipatu beharrekoa da, baita ere, galdera horretan, aurrekoan bezalaxe, ehunekoak apur bat jaitسي direla, esperientziaz ezagutzen duten eskola gomendatuko ez luketen familien ehunekoa 0,5 puntu igo baita.

4.2. HAURRESKOLETAKO HEZKUNTZA-LANAREN BALORAZIOA

Guraso gehienek balio handia ematen diote *Haurreskolak* Partzuergoko lanari, haurren aurrerapena erantzun ia guztietan aitortzen baita.

Galdera-sortan haurrak *Haurreskolak* Partzuergoko ikastetxe batean eskolatuta egotearen ondorioz izan duen aurrerapenaz galdetzen da. %99,1ek *Garapena eta ikaskuntza* atalean bai aurreratu duela erantzun dute; %98,6k *Harreman pertsonala eta bizikidetza* atalean bai aurreratu duela; eta %96,3k *Lokarri afektiboak eta segurtasun pertsonala* atalean bai aurreratu duela. Azken atal horretan 69 pertsonen balorazio negatiboa eman dute (lagineko populazioaren %3,7)

Era berean, galdera-sortan familiei zazpi hezkuntza-alderdiri buruzko iritzia eskatzen zaie. Alderdiak multzotan banatu ditugu: alde batetik, *haurrekoletako* hezkuntza-plangintzari dagozkionak, eta bestetik, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari dagozkionak.

Ondorengo taulan familiek seme-alaba eskolatuta dagoeneko *haurreskolaren* hezkuntza-alderdi batzuei buruz egin duten balorazioa aurkezten da. Ikus daitekeenez, oso balorazio positiboa izan dute; hala ere, alderdi batzuetako emaitzak kontuan hartu beharko lirateke ikastetxeetako lana planifikatzerakoan.

HAURRESKOLAKO HEZKUNTZA-ALDERDIEN BALORAZIOA	Nahiko + asko % 2013	Nahiko + asko %2014	Inoiz ez + gutxi % 2013	Inoiz ez + gutxi % 2014
Seme/alabak tratu pertsonalizatua jasotzen du, bere ezaugarrien eta beharren arabera	96,3	97,2	3,7	2,8
Haurreskolako jarduerak aurretiaz egindako hezkuntza-plan bati lotuak dira	93,8	94,7	6,2	5,3
Komunikazio-bideak erabiltzen dira, adibidez “agenda ibiltaria” edo informazio-orriak	88,9	89,8	11,1	10,2
Haurren eguneroko gauzez “haurreskola-familia” hitz egiteko uneak daude	85,3	86,5	14,7	13,4

Azpimarratu beharreko lehen datua hau da: familia ia guztiek (%97,2) uste dute *Haurreskoletan “seme/alabak tratu pertsonalizatua jasotzen duela, bere ezaugarrien eta beharren arabera”*, berau hezkuntza-prozesuaren eta adin horretako arretaren gakoetako bat delako. Horrez gain, aipatu beharrekoa da gehiengo handi batek (%94,7) positibotzat jo duela haurrekin egiten diren hezkuntza-jardueren aurretiazko planifikazioa. Bi alderdi horietan 2014an iguera txiki bat izan da erantzunen ehunekoetan.

“Haurren eguneroko gauzez *“haurreskola-familia”* hitz egiteko uneak daude” alderdian izan da Inoiz ez eta gutxi erantzun duten familien ehunekorik altuena, %13,4k uste baitu hezkuntza-lan hori ez dela behar besteko intentsitatez eta maiztasunez egiten. Hala eta guztiz ere, alderdi horretan balorazio positiboen ehunekoetan hobekuntza txiki bat izan da.

Familiei berdintasunari buruzko balorazioa ere eskatu zaie, hiru alderditan: *Sexuaren aldetiko bereizkeria eragozten da, Emakumearen gizarte-balorazioa sustatzen da eta Berdintasunari buruzko prestakuntza, informazioa edo materialak jaso dituzue. Haurreskolak Partzuergoak* bere agirieta garrantzi handia ematen dio gai horri, eta beraz, interesgarria da familiek egin duten balorazioa ezagutzea. Hain zuzen ere, Partzuergoaren web gunean atal berezi bat dute “Berdintasunarekiko eginbidea”, “Berdintasunari buruzko diagnosia” eta 2010eko maiatzean onartutako “Berdintasun plana” jakinarazteko¹³.

¹³ http://www.haurreskolak.eus/plan_igualdad

HAURRESKOLAKO BERDINTASUNARI LOTUTAKO ALDERDIEN BALORAZIOA	Nahiko + asko % 2013	Nahiko + asko % 2014	Inoiz ez + gutxi % 2013	Inoiz ez + gutxi % 2014
Sexuaren aldetiko bereizkeria eragozten da jardueretan, jolasetan, apainketan, testuetan...	89,9	90,1	10,2	10,0
Emakumearen gizarte-balorazioa sustatzen da haurreskolako jardueretan	87,7	87,4	12,3	12,5
Gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko prestakuntza, informazioa edo materialak jaso dituzue	24,8	28,7	75,2	71,3

Gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren inguruko edukiak, hein batean, ikastetxeetako eguneroko bizitzan daude, familien % 30ek erantzun baitute *gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko prestakuntza, informazioa edo materialak jaso dituztela*. Ehunekoia igo egin da 2013koarekiko, eta 2013ko edizioiko txostenean -baita oraingo honetan ere- aipatu zen bezala, Hezkidetza familiek gehien eskatzen dituztenetako gai bat da.

4.3. HAURRESKOLETAKO ANTOLAMENDU-ALDERDIEN, INSTALAZIOEN ETA ZERBITZUEN BALORAZIOA

Galdera-sortan zazpi **antolamendu-alderdi** orokor aipatzen dira, eta familiek balorazio ona eman diete. Ondorengo taulan *egokiak* edo *oso egokiak* direla uste dutenen ehunekoak eta *ez oso egokiak* edo *desegokiak* direla uste dutenen ehunekoak azaltzen dira handienetik txikienera ordenaturik, 2013ko ehunekoekiko konparazioarekin batera.

ANTOLAMENDU-ALDERDIEN BALORAZIOA	Egokiak + oso egokiak % 2013	Egokiak + oso egokiak %2014	Desegokiak + ez oso egokiak % 2013	Desegokiak + ez oso egokiak %2014
Zure seme/alabaren prozesuari buruzko txosten idatziak	96,2	96,6	3,8	3,4
Ate irekietako jardunaldiak	93,8	94,4	6,2	5,5
Haurreskolako administrazio-zerbitzuak	93,3	93,9	6,7	6,1
Zure seme/alabaren sartzeko-prozesua eta egokitapena	89,8	89	10,2	11,0
Zure seme/alabaren hezitzaileekiko elkarriketak	88,7	89,1	11,3	10,9
Elikadura, jolasak, loa, ohiturak eta antzeko alderdiei buruzko prestakuntza eta informazioa	87,4	85,8	12,6	14,2
Hezitzaile eta beste familiekiko bileren maiztasuna	78,5	79,9	21,5	20,1

Txosten idatziak (% 96,6) eta *Ate irekietako jardunaldiak* (% 94,4) izan dira alderdirik baloratuenak. Baloraziorik txarrenea izan duen alderdia *Bileren maiztasuna* izan da, erantzunen % 20 negatiboak izan baitira.

Gainera, galdera-sortan *haurreskoletako instalazioei eta beste zerbitzu batzuei lotutako 15 alderdi* sartu dira. *Desegokia, ez oso egokia, egokia* eta *oso egokia* erantzun zitekeen. Planteatutako 15 alderdietatik 9k oso balorazio ona izan dute (% 90etik gora), eta 3k

% 80 baino gehiago. Baloraziorik ezkorrena *Catering zerbitzua egotea eta Catering zerbitzuaren prezioa* alderdiek izan dute. Partekatutako espazioak eta Kanpoaldeko guneak alderdiek balorazio apalagoa izan dute.

Alderdi horietako batzuen ardura zuzena *Haurreskolak Partzuergoarena* da, eta beste batzuen, berriz, udalena, adibidez, *esparruaren segurtasun maila*.

Ondorengo tauletan erantzunen ehunekoak azaltzen dira:

Erantzunen %90ean baino gehiagotan baloratutako alderdiak Egokia + oso egokia	2013 %	2014 %
Altzariak eta bestelako baliabideak	96,9	97,1
Garbiketa eta mantentze zerbitzuak	96,6	96,8
Gaixotasunei erantzuteko protokoloak eta familiarekiko harremana	95,1	93,5
Familiak seme-alabaren bazkaria eramateko aukera	92,9	95,1
Tokiaren segurtasun maila	92,8	93,4
<i>Haurreskolaren eraikuntza</i>	92,2	93,4
Ordutegiak: sarrera, irteera, bazkaria, siesta	91,7	91,5
Funtzionamendu-orduen kopurua	89,7	91,8
Instalazioak, espazioen tamaina eta banaketa	89,6	91

Erantzunen %90ean baino gutxiagotan baloratutako alderdiak Egokia + oso egokia	2013 %	2014 %
Funtzionamendu-egunen kopurua	87,3	88,6
Espazio partekatutak (esekitokiak, iragarki-taula, sarrera, aulkitxoaren gunea ...)	86,3	88,3
Ahalmen urritasuna duten haurren edo senideen sarbidea	89	87,2

Erantzunen %70ean baino gutxiagotan baloratutako alderdiak Egokia + oso egokia	2013 %	2014 %
Catering zerbitzua egotea	69,7	69,5
Catering zerbitzuaren prezioa	52,4	54,7

4.4. FAMILIEN PARTE-HARTZEA ETA LANKIDETZA

*“Starting Strong III. A Quality Toolbox for Early Childhood Education and Care”*¹⁴ (OECD 2012) liburuan ELGak garrantzi handia ematen dio familiek eskolako bizitzan duten parte-hartzeari. Honela dio liburuak:

Gurasoen eta hezitzaile taldearen arteko informazio-trukeak "ongi egiten denean, ikastetxearen kalitatea hobetu dezake, eta, baita ere, etxean ama edo aita gisa jardutea eta etxean dagoen ikasteko giroa (219. or., ISEI-IVEIren itzulpena).

¹⁴ OECD (2012): Starting strong III. A Quality Toolbox for Early Childhood Education and Care. OECD Publishing.

Gurasoek *haurreskolako* bizitzan duten presentzia eta lankidetzari dagokionez, deialdietan guraso ia guztiek parte hartzen dutela ikusten da, eta ehuneko txiki batek bakarrik adierazten du hezkuntza-dinamikan parte hartzeko aukerak urriak direla.

Ondorengo taulan atalik baloratuenak ikus daitezke:

Baiezko erantzunak	2013 %	2014 %
Hezitzaileak zure seme/alabaren beharrak ezagutzen eta errespetatzen ditu	99	98,8
Hezitzailearekin hitz egiteko aukera egunero izaten duzu	93,7	94,7
Haurreskolan eskatzen dizkizuten argazkiak, liburuak edo bestelako materialak ekartzen dituzu	94,2	93,9
Hezitzailearekiko elkarrizketetara joaten zara	91,2	91,4
Seme/alabaren taldeko bileretara joaten zara	90,3	89,4
Badakizu haurreskolan egunero zer gertatzen den, zer egiten den	84,3	86,6

Baloraziorik altuena izan duen alderdia (%99) *Hezitzaileak zure seme-alabaren beharrak ezagutzen eta errespetatzen ditu* da, eta horrek berriro adierazten du *haurreskoletako* hezkuntza-lanaren aitorpena. Ehuneko altu hori koherentea da 4.2 atalean aipatutako *Seme-alabak tratatu pertsonalizatua jasotzen du*, bere ezaugarrien eta beharren arabera alderdian erantzun baikorrak %97,2 izatearekin.

Familien parte-hartzeari lotutako beste alderdi batzuetan balorazio baikorren ehunekoa txikiagoa izan da. Ondorengo taulan azaltzen dira.

Baiezko erantzunak	2013 %	2014 %
Haurreskolak zure interes kulturalak jasotzen ditu	78,6	78,1
Haurreskolak haur-hezkuntzari buruzko materialak ematen dizkizu (dokumentuak, bideoak, musika)	65,7	67,9
Haurreskolak 0-2 urteko adinari buruzko prestakuntza edo informazioa ematen dizu	63,7	64,3
Kultura edo laguntza ekintzetan parte hartzen duzu (musika, irteerak, liburutegia, jaiak, ospakizunak)	60,9	57,5
Haurreskolan kultura edo laguntza ekintzetan parte hartzeko aukera eman dizute	58,6	57,8

Ez dugu ahaztu behar lagineko familien erdia baino gehiago ados dagoela bost baieztapen horiekin. Hala eta guztiz ere, inkesta bete duen populazioaren atal batek (% 20-40) bere desadostasuna adierazi duenez, *haurreskoletako* ekintza berrietarako abiapuntu gisa har daitezke. Familiek eskolako bizitzan parte hartzearen aldeko jarrera dutela ikusten da, eta prestakuntza jasotzeko eta askotariko jardueretan parte hartzeko bideak eskatzen dituztela. Familien parte-hartzeak berekin ekarri ohi du ikaskuntzen hobekuntza, aniztasunarekin begirune handiagoa duen bizikidetzeta eta ikastetxea gizarteratze-agente bezala definitzea.

5. ONDORIOAK

Inkesta bete duten familiek seme-alabaren *haurreskolako* zerbitzuaz egindako balorazioetatik ondorio hauek atera daitezke.

- 1. *Haurreskolaren* balorazioa 2014an oso maila altuan mantendu da, ikerlanaren 2013ko edizioko maila berean ia. Balorazio positibo horrez gain, familien % 97,6k seme-alabaren *haurreskola* gomendatuko luke.**

Haurreskoletan jasotako zerbitzua dela eta, gogobetetze mailarik altuena familien %75,5ek azaldu du, eta gogobetetze mailarik baxuena familien 0,9k bakarrik. Datu positibo horien aurka bakarrik esan liteke familien iritzietan gogobetetze mailaren jaitciera txiki bat izan dela. Ikusi egin beharko da hurrengo edizioetan jaitciera mantendu ala desagertzen den.

- 2. *Haurreskolak* haurraren garapenari egindako ekarpena oso positibotzat jo dute familiek, seme/alaben garapenean eta ikaskuntzan, eta baita harremanetan eta lokarri afektiboetan ere, aurrerapen nabarmena ikusten dela erantzun baitute.**

Azpimarratu behar da, baita ere, familien % 99k hezitzaileek haurraren beharrak ezagutzen eta hein handian errespetatzen dituztela uste duela, iritzi horrekin zerbitzuaren hezkuntza-lana nabarmenki goraipatzen dutelarik. Era berean, familien % 97,2k adierazi du profesional horiek emandako arreta pertsonalizatuarekin oso pozik daudela.

- 3. Familien % 94,7ren iritziz, aurretiazko hezkuntza-plangintza oso garrantzitsua da *haurreskoletako* eguneroko jardueretako gida bezala. Plangintzaren arloarekin jarraituz, komunikazio-bideak eta uneak egoteak ere balorazio positiboa izan du, % 89,9k baliorik handiena eman baitio, baina ehunekoa zerbitzu horretako lanaren beste alderdi batzuetakoak baino apalagoa izan da.**

Aipatu beharrekoa da familiek jardueren aurretiazko plangintzari oso balorazio ona eman izana, hezkuntza-lanaren funtsezko elementu estrategikoa delako. Familiekiko komunikazio ona eta etengabea hori bezain funtsezkoa bada ere, balorazio apala izan du beste alderdi batzuetan baino ehuneko handiagoan: % 13,4ren ustetan komunikazioak ez du behar besteko intentsitaterik eta maiztasunik, eta % 13k erantzun du ez duela ezagutzen seme-alabaren *haurreskolan* egunez egun zer egiten den.

- 4. Ikasgelako jardueri dagokienez, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna eta bazterkeriarik ez egotea, *Haurreskolak* Partzuergoaren helburu esplizitueto bat, positibotzat jo dute familiek (%90,1); hala ere, aldi berean euren desadostasuna azaldu dute gai horiei buruz jasotzen duten informazioarekin eta prestakuntzarekin.**

Familien % 71,3k adierazi du oso informazio urria –edo bat ere ez– jasotzen dutela gizonen eta emakumeen arteko berdintasunez. Gabezia hori ikerlanaren 2013ko edizioan ere antzeman zen, eta, dirudienez, atsekabe handia sortu du familien artean, nahiz eta 2013ko datuekin konparaturik hobekuntza txiki bat izan den.

5. **Haurreskolen antolamenduari, instalazioei eta zerbitzuei lotutako alderdiek oso balorazio altua jaso dute –iritzi positiboak, %90etik gorakoak–, eta oro har 2013an lortutako maila altuetan mantendu da.**

Arestian aipatu den bezala, familiek gogobetetze maila altua erakutsi dute antolamenduari eta instalazioei dagokienez; hala ere, alderdi batek balorazio nabarmenki apalagoa izan du: catering, alegia. Familien kopuru handi samarrak erantzun du bai zerbitzua (% 69,5) bai prezioa (% 54,7) ez direla oso egokiak edo batere egokiak. Alderdi hori ikerlanaren aurreko edizioako mailan mantendu da.

6. BIBLIOGRAFIA ERREFERENTZIAK

- Euskadiko Eskola Kontseilua (2015): *Hezkuntza Euskadin, 2012-2013*, Vitoria-Gasteiz.
- Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila (2011): *Familiei laguntzeko erakundearteko III plana*.
http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.net/r45-docuinfo/es/contenidos/informacion/6199/es_2284/adjuntos/III_plan_familia_def.pdf
- Dorado Rubí, M.J. (2014): “La escolarización temprana a examen: diferentes dimensiones de su extensión en España” (155-173 or.), *Crisis y Cambio: propuestas desde la Sociología* liburuan, II Atala. Actas del XI Congreso Español de Sociología, Facultad de Ciencias políticas y Sociología de la Universidad Complutense, Madrid.
- European Commission / EACEA / Eurydice / Eurostat, 2014. *Key data on Early Childhood Education and Care in Europe. 2014 Edition*. Eurydice and Eurostat Report. Luxembourg: Publications Office of the European Union.
- EUSTAT. www.eustat.eus.
- Eusko Jaurlaritza (2003): *Seme/alabak dituzten familiei laguntzeko erakundearteko I plana*. Vitoria-Gasteiz.
- Hidalgo-Hidalgo, M eta García-Pérez, J.L. (2013): “*Impacto de la asistencia a Educación Infantil sobre los resultados académicos del estudiante en Primaria*”, PIRLS-TIMSS 2001. Estudio Internacional de progreso en comprensión lectora, matemáticas y ciencias. Volumen II: Informe español. Análisis secundario, Ministerio de Educación, Cultura y Deporte- INEE, Madrid.
- ISEI-IVEI (2014). *Haur Hezkuntzako lehen zikloa Euskadin. Haurreskolak Partzuergoko ikastetxeen azterketa eta balorazioa*.
- Ministerio de Educación, Cultura y Deporte (2010): *Mapa de indicadores*
http://www.mecd.gob.es/inee/sistema-indicadores/mapa-indicadores/Mapa-de-indicadores-2010_11_12.html
- Ministerio de Educación, Cultura y Deporte (2010): *Educación y Atención a la Primera Infancia en Europa: un medio para reducir las desigualdades sociales y culturales*, Madrid.
- OCDE (2014): *¿Llega la educación infantil a aquellos que más la necesitan?* Pisa in Focus, 2014ko ekaina.
- OECD (2012): *Family database*. <http://www.oecd.org/els/soc/oecdfamilydatabase.htm>
- OECD (2012): *Starting strong III. A Quality Toolbox for Early Childhood Education and Care*. OECD Publishing.